

LEZOKO EH BILDU-REN EKITALDIA

Udal hauteskundeetako zerrendaren eta hautagaitzaren
ardatzen aurkezpena
2023-3-15, Gezala

Mikel Arruti Salaberria Lezoko EH Bilduren alkategaiaren hitzaldia

Arratsaldeon, eta mila esker gaurko ekitaldira etorri zareten guztioi.

Eneritzek eta Mireiak aipatu duten bezala, Lezo Errotik prozesua izan dugu iparrorratz egin dugun bide honetan.

2018an hasi genuen Lezo Errotik, eta inflexio puntu moduko bat izan zen. Gure ustez, epe ertainera begirako proiektu bat falta zitzaigun Lezorako. Nora iritsi nahi dugun jakitea ezinbestekoa delako bidean pauso egokiak emateko. Lezo Errotik prozesuan ateratako ondorioek bideorri bat izateko balio izan digute.

Hortaz gain, Lezo Errotik prozesuak beste emaitza on bat ere izan zuen. Azken urteetan apaldurik genituen animoak, indarrak eta ilusioak berpizteko ere balio izan zuen.

2015ean kolpe handia jaso genuen udal hauteskundeetan: 9 zinegotzi izatetik 6 izatera pasatu ginen; 1.443 bozka jasoz lehen indarra izatetik, 1.141 bozkekin bigarren izatera jaitsi ginen. Eta, ondorioz, alkatetza galdu genuen.

Baina **Lezo Errotik-en eman ziren dinamikek, sortu zen giroak eta elkarrekin landutako proiektu baten parte izateak, inguruan ilusioa, konfiantza eta animoak berpiztu zituen. Gure komunitatea aktibatu eta bidean aurrera egiteari ekin genion.**

Horrek, 2019ko udal hauteskundeetan ere isla izan zuen: 1.418 bozkekin lehenengo indarra izatera igo ginen berriro. Egia da, lehen aipatu den bezala, EAJ eta PSEk indarrak batu eta alkatetza

eskuratu zutela, gehiengo osoa osatuta. Zuetako batek baino gehiagok, alkatetza ez eskuratu izanagatik sentitu zenuten pena eta etsipen puntua adierazi zeniguten, **baina 2019ko udal hauteskondeek bide onean goazela erakutsi zuten.**

4 urte hauetan oposizioan lan egitea egokitu zaigu, eta jakina da oposizioan hotz egiten duela. Lehenengo unetik, elkarlanerako borondatea azaldu genuen. EAJrekin elkarrizketa saio bat zabaltzen saiatu ginen. Legealdian zehar ere, hamaika proposamen aurkeztu dizkiogu gobernu taldeari, baina ez dugu elkarlanerako prestasunik jaso eta gure proposamenak ez dituzte aintzat hartu ere egin.

Dena den, egoera guztietatik ikasten da, eta egoera horretatik ere ikasgaiak jaso ditugu. Arnaldo Otegi esaten du batzuetan irabazi egiten dela, eta besteetan, ikasi. Gu ikasteko beti prest gaude, baina oraingo honetan hauteskondeak irabazi eta alkatetzatik ikasiko dugu.

Eneritzek eta Mireiak lehen ere aipatu dute krisiak bata bestearen atzetik kateatzen ari zaizkigula. Ziurgabetasunak nagusitzen ari direla.

Horrek, **gizartea gero eta indibidualistago** izatera bultzatzen du. Proiektu politiko batengan sinistea zailtzen du eta **jendea politikatik urruntzen ari da**. Herritar askok beren herrian politika instituzionala —hau da, udala—, gero eta urrunago sentitzen dute. **Baina horrek ez gaitu etsipenean murgilduko. Gurea ez delako politika konbentzionala. Gu herrigintzatik gatoz. Zuek bezala, herriko hainbat elkarte eta eragileetatik gatozen herritar konprometituak gara.** Guretzat udalean aritzea, herrigintzaren beste arlo bat da. Mikel Arrizabalagak argi zuen herrigintzak instituzioetatik aritzea ere behar duela.

Eta politika ulertzeko modu hori, abantaila handia da guretzat, herritarrengandik gertuen gaudenak izatea esan nahi baitu. Gurea dugun esentzia horretatik urrentzen bagara, beste alderdi bat gehiago izatera igarako ginatke, eta herritarrek, beraiengandik urrun dagoen alderdi baten gisara ikusiko gintuzkete.

Badakigu dena ez dugula ongi egiten. Akatsak ere egiten ditugu. Eta etorkizunean ere egingo ditugu. Beti ez dugu asmatzen.

Baina apaltasun osoarekin akats horiek onartu, autokritika egin eta zintzoki bidean aurrera jarraitzeko ikasgai gisara baliatu behar ditugu.

Zaintza izango da datorren legegintzaldirako osatzen ari garen proiektuan ardatz nagusia. Zaintza bere adiera zabalenean. Zaintza sistema publiko-komunitario bateranzko dinamikak eta politikak gauzatuko ditugu. Zaintzak guztion ardura izan behar duela ulertzen dugu: instituzioena, herritar norbanakoena eta herriko elkarte eta eragileena. Horretarako, herritar antolatuen ekarpenak eta herriko elkarteen eta eragileen proiektuak bultzatu eta indartu behar dira. **Elkar zaintzen dugun herria izatea nahi dugu. Elkarrekin zainduko dugun herria. Elkarrekin, herria garelako.**

Horregatik ere, izugarrizko garrantzia du zuek bezalako oinarri sozial aktibo eta konprometitu bat izateak. Ezinbestekoa zaigu herrigintza indartsu bat izatea, herri bizia izatea, eta lehengo proiektuak ikusi dugun moduan, Lezo herri bizia dugu. Eta dugun altxor hori zaintzea eta sendotzea guztion ardura izan behar du. Apaltasun osoz, gaurko ekitaldi hau, herrigintzan, modu batean edo bestean, zabilzaten guztioi gure aitortza eta esker ona adierazteko ere baliatu nahiko genuke. Biba zuek!

Asko dugu jokoan maiatzeko udal hauteskundeetan. Erronka handia da. Eta prest gaude.

- **Prest gaude Lezok behar duen udala eta herritarren arteko gidaritza partekatuan sinisten dugulako.**
- **Prest gaude Lezorako 10-15 urteetarako proiektu bat dugulako.**
- **Prest gaude proiektu hori gauzatu dadin herritarrekin eta eragileekin osatutako herri-programa aurkeztuko dugulako.**
- **Prest gaude udalgintzatik lan egiteko hainbat esparrutan aritutako, herria ezagutzen duten eta lezoarrak diren talde aparta osatu dugulako.**

2019an Lezoko lehen indarra izan ginen, eta maiatzeko

hauteskundeetan ere lehen indarra izango gara. Konbentzituta gaude 2019an lortutako 1.418ko bozka kopurua gainditzeko aukerak ditugula. Irabaztera goaz!

Eta gehiago diogu: gure helburua alkatetza eskuratzea da!

Gehiago diogu: gure helburua Maddalen Iriarte ahaldun nagusia izatea da!

Anbizioa dugu.

- **Anbizioa dugu, bere ingurunea zainduko duen herria izateko, trantsizio energetikoan eta mugikortasun jasangarrian urratsak emanez.**
- **Anbizioa dugu, herritarrekin batera arituz, herritarren bizitzak erdigunean jarriko dituen udal politikak aurrera eramateko.**
- **Anbizioa dugu, herriko eragileen eta elkarten lanari balioa emanez, herri biziago bat izateko.**
- **Anbizioa dugu, saretuz eta komunitatea indartuz, elkar zainduko dugun herria izateko.**

Horiek dira gure anbizioak. Gureak ez dira anbizio pertsonalak. Gureak, etorkizun komun hobe bat izateko anbizioak dira.

Orain arte EH Bildu bozkatu ez dutenen bozkek ere borrokatzera goaz. Guregandik hain gertu ez dauden herritarrak ere erakarri behar ditugu.

Guk eman dugu pausoa, baina argi dugu, aurrean dugun erronka handi horri behar bezala erantzun eta gure helburuak betetzeko, gu bakarrik arituz nekez lortuko dugula. Zuen babesak, ekarpenak eta lana ezinbestekoak ditugu.

Horregatik, gaur, Gezalatik konpromiso batekin irtetea eskatzen dizuegu: gaurtik hasi eta hauteskunde egunerarte, zuen hurbilekoei eta ez hain hurbilekoei gure herri proiektuaren, gure egiteko

moduaren berri ematea. **Gure herriak aurrera egin dezan, udal gobernuan aldaketa ematea ezinbestekoa dugula ikustaraztea. Gure anbiziorekin ziprizzintzea hurbilekoak eta ez hain hurbilekoak.**

Guztiok egin dezakegu zerbait. Argi izan, keinu guztiek, txikiak izanagatik ere, bere eragina dutela. Eta horrela, guztion keinu txikiak batuz, **Lezoko alkatetza eskuratzea lortuko dugu!**

Mila esker guztiagatik.

Biba zuek!

Gora Lezo!